

I. XEDAPEN OROKORRAK

ESTATUKO BURUZAGITZA

8633 2/2020 Legea, uztailaren 27koa, Prozedura Kriminalaren Legearen 324. artikulua aldatzen duena.

FELIPE VI.a

ESPAINIAKO ERREGEA

Honako hau ikusten eta ulertzen duten guztiei.

Jakizue: Gorte Nagusiek honako lege hau onetsi dutela eta nik berretsi egiten dudala:

HITZAURREA

Agerian geratu da instrukzioaren iraupenari gehieneko muga bat besterik gabe ezartzea kaltegarria dela delitu konplexuak jazartzean zigorgabetasuna eragin dezakeelako. Baina egia da, halaber, instrukzioaren iraupenari muga batzuk jartzea berme bat dela justiziapekoen eskubideak bermatzeko.

Jakina denez, zigor-prozesua berez zigor bat da inputatuarentzat, nahigabea eta kostuak sortzen baitizkio. Izan ere, beste arlo batzuetan (esaterako, zerga- edo zehapen-arloan) ikuskaritza- edo instrukzio-jardueren iraupenari mugak ezartzen zaizkion arrazoi bera oinarri harturik, sistema bat eratu behar da zigor-prozesua eta errugabetasun-presuntzioaren eta defentsarako eskubidearen oinarritzko eskubideak bateratu daitezen, eta zigor-prozesua berme guztiekin eta arrazoizko epean bideratu dadin.

Artikulu bakarra. Aldatzea Prozedura Kriminalaren Legea, 1882ko irailaren 14ko Errege Dekretuaren bidez onartutakoa.

Aldatu egiten da 1882ko irailaren 14ko Errege Dekretuaren bidez onartutako Prozedura Kriminalaren Legearen 324. artikulua, eta honela idatzita geratzen da:

«1. Ikerketa judiziala gehienez ere hamabi hilabeteko epean garatuko da, auzia abiarazten denetik zenbatzen hasita.

Epea amaitu aurretik egiaztatuko balitz ezin izango dela ikerketa amaitu, epaileak, ofizioz edo alderdiren baten eskariz, eta alderdiei entzun ondoren, ondoko ondoko eta gehienez ere sei hilabeteko luzapenak adostu ahalko ditu.

Luzapenak auto bidez onartuko dira. Auto horietan arrazoituko da zein izan diren ikerketa epe barruan amaitzea eragotzi duten arrazoiak, bai eta zein eginbide zehatz gauzatu behar diren eta eginbide horiek zer-nolako garrantzia duten ere ikerketarako. Luzapena ukatuz gero, hori ere ebazpen arrazoitu baten bidez adostuko da, hala badagokio.

2. Epea edo epearen luzapena amaitu aurretik adosten diren ikerketa-eginbideak baliozkoak izango dira, nahiz eta eginbide horiek epea amaitu ondoren jaso.

3. Epea edo epearen luzapenen bat amaitu aurretik instrukzio-egileak ez badu 1. apartatuan aipatzen den ebazpena eman, edo ebazpen hori errekurtsio bidez baliozkoak balitz, egun horretatik aurrera adosten diren eginbideak ez dira baliozkoak izango.

4. Epaileak instrukzioa amaitu egingo du instrukzioaren xedea bete dela ulertzen duenean. Gehieneko epea edo luzapenen epeak igarotakoan, instrukzio-egileak sumarioa amaitzeko autoa emango du; prozedura laburtua bada, berriz, dagokion ebazpena emango du.»

Xedapen iragankorra. *Izapidetzen ari diren prozesuak.*

Artikulu bakarrean jasotzen den Prozedura Kriminalaren Legearen 324. artikulua aldaketa hori aplikatuko zaie lege hau indarrean jartzen denean izapidetzen ari diren prozesuei. Ondore horretarako, artikulua aldaketa horretan ezartzen diren instrukzioaren gehieneko epeak zenbatzen hasteko lehenengo eguna artikulu bakar hori indarrean jartzen den eguna izango da.

Azken xedapenetako lehenengoa. *Eskumen-titulua.*

Lege hau Espainiako Konstituzioaren 149.1.6 artikuluan ezarritakoaren babesean eman da; artikulu horrek prozesu-legeriaren arloko eskumen eskusiboa esleitzen dio Estatuari.

Azken xedapenetako bigarrena. *Indarrean jartzea.*

Lege hau indarrean jarriko da Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean.

Horrenbestez,
Lege hau bete eta betearaz dezatela agintzen diet espainiar guztiei, partikularrei zein agintariei.

Madrilen, 2020ko uztailaren 27an.

FELIPE e.

Gobernuko presidentea,
PEDRO SÁNCHEZ PÉREZ-CASTEJÓN